

“EUROSKUALDEKO HIRITARTASUNA” PROIEKTU DEIALDIA

01 	ZURE ESKAERA ERAIKITZEA	2
02 	ESTALDURA GEOGRAFIKOA	2
03 	BAZKIDEAK	2
04 	FINANTZIAZIOA	3
05 	DIRULAGUNTZA	4
06 	JUSTIFIKAZIOA GASTUEN HAUTAGARRITASUNA	4
07 	PROIEKTUEN ADIBIDEAK	5
08 	“ELKAR HOBETO EZAGUTZEA, LANKIDETZAN HOBETO ARITZEKO”	6



01 | ZURE ESKAERA ERAIKITZEA

■ Zein da proiektuen deialdira aurkezteko prozedura?

Proiektuen deialdiaren orrian adierazitako dokumentu guztiak bete beharko dira: <https://www.euroregion-naen.eu/eu/proiektuak/euroeskualdeko-hiritartasuna-proiektuen-deialdia/>. Proiektuaren fitxa Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetan bete behar da. Eskabidea amaitzeko, formularioa ere bete beharko da.

■ MINIMISerako eta BEZa berreskuratzeke: dokumentu bat sinatu behar da bazkide bakoitzeko edo dokumentu bakarra egin behar da guztientzat (informazioa bereizita eta guztien sinadurekin)?

Bazkide bakoitzak ziurtagiri bat bete behar du, MINIMIS laguntzak eragiten dion ala ez eta BEZa ez duela berreskuratzen. Hala ere, eskabidea aurkeztean bakarrik bidali ahal izango du ziurtagiri bat. Beraz, taldeburuak bazkideen informazioa bateratu behar du dokumentu bakarra aurkezteko.

■ Euroeskualdeak lagundu al dezake eskaera-espeditenteak itzultzen?

Euroeskualdeak ezin ditu itzulpenak egin hautagaitzarako proiektuaren arduradunentzat. Proiektuak irauten duen bitartean egiten diren itzulpenak geroago diruz lagundu ahal izango dira.

02 | ESTALDURA GEOGRAFIKOA

■ Hiru lurraldeetako bazkideak gara eta proiektuko ekintza bat edo guztiak Euroeskualdeko lurralde geografikotik kanpo egin nahi ditugu. Hautagarriak gara?

Bai, baina kontuz proiektuaren egokitasunarekin eta euroeskualdeari ematen dion balio erantsiarekin.

03 | BAZKIDEAK

■ Bazkide batek hainbat proiektutan parte har dezake?

Bai, posible da. Hala ere, Euroeskualdea ahalik eta eragile gehien finantzatzen ahalegintzen da.

■ Aholkuren bat taldeburua zein antolakunde/pertsona den jakiteko?

Garrantzitsua da jakitea taldeburu izateak lan-karga handiagoa eskatzen duela. Beraz, hobe da proiektuen kudeaketan esperientzia izatea. Euroeskualdeko taldea bertan izango da behar duten erakundeei laguntzeko. Erakunde liderraren ezaugarriek ez dute eraginik proiektuaren hautaketan, izan publikoa, pribatua, enpresa, elkarte, handia edo txikia. Independentek eta langile autonomoak bakarrik ezin dira taldeburu izan.

■ Erakunde publiko batek izan al daiteke taldeburu eta proiektu bat aurkeztu dezake? Edo elkarteak bakarrik?

Bai, edozein erakunde publikok, bai elkarteek, proiektu bat aurkez dezakete eta proiektu-buru izan.

■ Elkarteek proiektuan parte har dezakete?

Bai.

■ Enpresa bat bazkide izan daiteke?

Bai.



■ **Unibertsitateek parte har dezakete?**

Bai.

■ **Kideen lana bi enpresaren eta irabazi asmorik gabeko kultur talde baten artean eraman daiteke?**

Bai.

■ **Autonomo batek proiektuan parte har dezake?**

Langile autonomoak eta mikroenpresariak ezin dira taldeburu izan, baina bazkide izanik proiektuaren parte izan daitezke.

■ **Euroeskualdetik kanpoko bazkideek beren parte-hartzea egiaztatu behar dute eta nola egin beharko litzateke? Sinadura bat, dokumentu erantsi bat?**

Euroeskualdeko lurraldetik kanpo dauden erakundeek ezin dute proiektuaren partaidetzan parte hartu, kostuak aurkeztu eta dirulaguntza lortu. Hala ere, proiektuan parte har dezakete aurrekonturik ez dakarten ekintza puntualen bidez. Beraz, ez dira hautagai-zerrendan eta dokumentuetan agertu behar. Proiektuaren fitxaren eranskin batean baino ezin dira aipatu. Lankidetzaz kanpoko erakundeek ez dute inolako gasturik edo diru-sarrerarik aurkeztu behar proiektua finantzatzeko planean.

■ **Artista batekin lan egiten baduzu, nola ordain dezakezu bazkideen artean fakturaziorik ez badago?**

Artista hau bazkide bat bada, orduan bere fakturak aurkeztuko ditu, beraz, ez dago fakturaziorik bazkideen artean eta hau proiektuaren gastuen parte izango da. Kanpoko zerbitzu baten bidez artista batekin lan egiten bada, gastuak "kanpoko prestazio" gisa fakturatuko dira.

■ **Bazkide baten bila bazabiltza, nola egin dezakezu deialdi bat? Euroeskualdeak lagun zaitzake bazkide bat aurkitzen?**

Euroeskualdeak bazkideak biltzen lagun dezake, hala nahi badute eta falta diren bazkideak aurkitzeko zailtasunak badituzte. Hala ere, ideia zehatz bat izan behar dute beren proiektuaz eta bazkide izango denaz. Euroeskualdeko kide diren gobernuetako kanpo-ekintzako departamentuek ere lagun zaitzakete zeregin horretan.

04 | FINANTZIAZIOA

■ **Autofinantzaketaren % 20 izateak esan nahi du proiektua ezin dela kanpoko iturriekin % 100ean finantzatu?**

Bai, proiektuak % 80 kanpoko iturriekin baino ezin dira finantzatu; gainerako % 20a bazkideen diruzaintzatik bertatik etorri behar da.

■ **Kofinantziazioa EZIN da etorri Euskal Herriko/Nafarroako/Akitaniako (tokikoa, eskualdekoa, departamentukoa) ezein erakunde publikotatik?**

Euroeskualdearen eta Euskadiko, Nafarroako eta Akitaniako Eskualde Berriko gobernuen baterako finantzaketa-tasa osoa ezin da % 80tik gorakoa izan, autofinantzaketa-baldintza % 20koa baita.

■ **Baterako finantzaketa bateragarria al da eskualdeen arteko lankidetzako beste programa batzuekin? Adibidez, POCTEFA.**

Bai, autofinantzaketaren % 20 aurkeztu behar da, % 50 Euroeskualdearen dirulaguntza da, eta gainerako % 30a baterako finantzaketa publikoa edo pribatua izan daiteke. Beraz, guztiz posible da eskualdeen arteko lankidetzaren beste baterako finantzaketa bat, hala nola POCTEFA.

■ **Proiektuetan, beharrezkoa al da gutxieneko gastu bat egitea lurralde bakoitzean?**

Ez, baldintza bakarra proiektuak eta bere gastuek zentzua izatea da. Aurkeztutako aurrekontua eta euroeskualdean egindako proiektua bat etorri behar dira. Ez da kostuen berdintasunik ezartzen bazkideen artean. Hala ere, bazkideen arteko ekitatea lankidetzarako logikan balioesten da. Kostuak partenariotzako erakundeen izaeraren, jardueraren eta abarren arabera bana daitezke.

05 | DIRULAGUNTZA

■ **Zein da proiektu bakoitzeko eman daitekeen gehieneko zenbatekoa?**

Proiektuen Deialdiaren barruan, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak emandako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa proiektuaren kostu osoaren % 50era iritsi daiteke, aurkeztutako proiektu bakoitzeko 30.000 euroko gehieneko dirulaguntzarekin. Proiektuak, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren % 20 autofinantzatu beharko du.

■ **Noiz kobratzen dira dirulaguntzak?**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehenengo zatia % 40koa izango da akordioa sinatzen denean, eta gainerako % 60a proiektuaren amaieran, justifikazio teknikoa eta finantzarioa jaso eta baliozkotu ondoren.

■ **Taldeburuak dirulaguntza jasotzen du edo zatitu egiten da eta, baiezkoa bada, zein araren arabera?**

Taldeburuak dirulaguntza osoa jasotzen du, eta bazkide bakoitzari dagokion zatia birbanatu behar du, eskaera aurkezteko unean ezarritako banaketaren arabera.

■ **Bazkide guztiek parte hartu behar dute autofinantzaketan?**

Bai, era batera edo bestera, nahiz eta aurrekontu globala egon.

■ **Zenbat denbora behar da berrikusteko, jakinarazteko eta justifikazioa ordaintzeko?**

Jasotako proiektu kopuruaren arabera da epea, baina ahal den gutzia egiten da lehenbailehen egiteko. Ordainketari dagokionez, Frantziako Altxorraren mende dago, berak exekututzen duelako. Beraz, Euroeskualdea arau desberdin horietara egokitu behar da.

06 | JUSTIFIKAZIOA | GASTUEN HAUTAGARRITASUNA

■ **Laguntzen justifikazioa aurkez zenezakete?**

Proiektua hiru dokumenturen bidez justifikatu behar da :

- **txosten teknikoa**, ekintzen aurrerapena eta lankidetzeta nola joan den azaltzen duena;
- **finantza-txostena**, Excel artxibo bat, proiektuaren gastu guztiak zerrendatzen dituena eta justifikazio-agiri bati lotzen zaizkiona (faktura, ordainagiria),
- **kapitalizazio-txostena**, finantzatutako proiektu guztien ikuspegi orokorra ematen duena.

Kontuz: Garrantzitsua da proiektuaren kostu osoa aurkeztean zehatza izatea, kostu hori justifikatu behar baita proiektuaren amaieran.



■ **Eskudirutan egindako gastuak sartuta al daude?**

Bai, egiaztagiriak aurkezteko baldintzarekin.

■ **Finantza planeko egitura bateko langileak (soldata) balora daitezke?**

Bai, langileen gastuak diruz lagundu daitezke, pertsonak proiektuan zuzenean lan egiten badu.

■ **Baloratu al daiteke boluntarioen lana aurrekontuan?**

Bai, boluntariotzaren ziurtagiria bete behar duzu. Hala ere, kontuan eduki behar dira legezko mugak eta boluntarioak ezin duela enplegatu baten lanpostua ordezkatu.

■ **Kontulariaren gastuak sartzen dira?**

Ez. Proiektuarekin zuzenean lotutako kostuak baino ez dira estaltzen.

■ **Abokatuekin lotutako gastuak barne hartzen al dira (oinarri juridikoak idaztea)?**

Proiektuaren edukirako kanpoko prestazioak badira, kostu hori diruz lagundu daiteke. Bazkideetako bati faktura bat aurkeztu beharko zaio.

07 | PROIEKTUEN ADIBIDEAK

■ **Ba al dakigu zein proiekturi eman zaien dirulaguntza?**

Finantzatutako proiektuei buruzko informazioa Euroeskualdearen webgunean kontsulta daiteke. Aurreko urteen aukerapena hemen ikusgai daiteke :

- 2022 : <https://www.euroregion-naen.eu/eu/artikuluak/euroeskualdeko-hiritartasuna-2022-proiektu-deialdiko-emaitzak/>
- 2021 : <https://www.euroregion-naen.eu/eu/artikuluak/euroeskualdeko-hiritartasuna-2021ko-proiektu-deialdiaren-ebazpena/>
- 2020 : <https://www.euroregion-naen.eu/eu/artikuluak/2020ko-euroeskualdeko-hiritartasuna-proiektu-deialdiaren-emaitzen-argitaratzea/>

■ **Erronka sozial garaikideen proiektuen adibideak eman ditzakezue?**

"Erronka sozial garaikideen" gaia berria da 2022tik. Aukera ematen du berdintasuna, gizarteratzea eta Euroeskualdeko herritarren konpromisoa sustatzera bideratutako ekimenak deialdian sartzeko. Landa-eremuetako exodoaren, biztanleriaren zahartzearen, genero-desberdintasunen eta talde kalteberen inklusioaren gaiak jorratzen dituzten proiektuei laguntzea ahalbidetzen du.

2022an "erronka sozial garaikideak" jorratzen zituzten 3 proiektu finantzatu ziren:

- **BIZI-CONNECT**: Mugikortasun iraunkorra sustatzea du helburu, eta, bereziki, bizikletaren erabilera Bidasoako bizi-eremuan, sentsibilizazioaren bidez.
- **IKERTU NAHIEN**: Euroeskualdeko landa-ingurunean eta landa-eremuan lan egingo duten ikertzaileen sare bat sortzea du helburu.
- **ASKHEZI**: Helburua da ahotsa euskaraz diktatzeko sistema bat sortzea, haur ezinduek ikasten jarrai dezaten.

■ **Posible al da proiektuaren lehen fasea aurkeztea eta urtez urte eboluzionatzen joatea?**

Bai, baina proiektuak bere elkartearen, ekintzetan edo estaldura geografikoan eboluzionatu behar du.

■ **Hauta al daiteke proiektu zabalago baten ekintza-proiektu bat eta aurrefigurazio-azterketa bat, zeina POCTEFA proiektu baten 2.fasera eraman daitekena?**

Berez, bai, baina Euroeskualdeari aurkeztutako lehen proiektu horrek ez du proiektu baten aurrefigurazio-azterketa soila izan behar. Lehen fase horrek helburuak, ekintza zehatzak eta espero den emaitza izan behar ditu: Euroeskualdeko lurraldearentzat benetako balio erantsia izan behar du.

■ **Hauta al daitezke ikerketa-proiektuak?**

Bai. Hala ere, ikerketaren gaia deialdiko gaietako batekin lotuta egon behar da.

08 | “ELKAR HOBETO EZAGUTZEA, LANKIDETZAN HOBETO ARITZEKO”

■ **Nola jakin dezaket noiz egingo diren ardatz desberdinei buruzko proiektuen hurrengo deialdiak?**

Proiektuen deialdiak urte batetik bestera irekitzen dira, betiere data berberen inguruan:

- “Euroeskualdeko hiritartasuna”: udaberrian.
- “Euroeskualdeko berrikuntza”: udazkenean.

■ **Proiektu-buruak aurtengo deialdirako garaiz iristen ez badira, datorren urtean aurkeztu al daitezke?**

Bai, urteroko deialdia da. Gutxi gorabehera data beretan programatuko da datorren urtean.

■ **Deskriba ditzakezu zure Plan Estrategikoaren ardatzak?**

Euroeskualdeko 2021-2027 Plan Estrategikoari buruzko xehetasun guztiak aurki ditzakezu [hemen](#).



- 1. ardatza:** Kultura, Eleaniztasuna, Gazteria, Kirola, Hezkuntza, Erronka sozial garaikideak
- 2. ardatza:** Enplegua, lanbide-heziketa eta ikaskuntza, ikerketa berrikuntzan eta digitalizazioan, unibertsitate-lankidetzan
- 3. ardatza:** Ingurumena, garraioa, lurralde-plangintza, natura-gune partekatuen kudeaketa
- 4. ardatza:** Mugaz gaindiko eremuaren gobernantza hobea garatzea
- 5. ardatza:** Euroeskualdeko komunikazioa, mugaz gaindiko behaketa eta mugaz gaindiko oztupoak konpontzea

■ **Euroeskualdeak komunikazio-tresna fisikoak (digitalak ez direnak) eman al ditzake?**

Euroeskualdeak bere komunikazio-tresnak ditu, baina proiektuko kideek beren komunikabideak jarri beharko dituzte martxan, kakemonoak edo bestelakoak.



■ **Proiektu-buruek hitzordua eska dezakete beren proiektua aurkezteko? Erantzuna baiezkoa bada, nola jar daitezke harremanetan Euroeskualdeko taldearekin?**

Zure proiektua Euroeskualdeko taldeari aurkezteko, hitzordua eska dezakezu Marie HEGUY-URAIN, "Euroeskualdeko Hiritartasuna" proiektu deialdiaren arduradunarekin, posta elektronikoz (marie.heguy-urain@euroregion-naen.eu) edo telefonoz **+33 6 23 15 95 95** telefonora deituta. Hitzordua zuzenean egin daiteke Euroeskualdeak Hendaian dituen bulegoetan, bazkideen bulegoetan edo bideokonferentzia bidez.